

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ipuin bat, besterik ez



Xabier Etxaniz Erle



Otsoaren ipuina VÉRONIQUE CAPLAIN

Irudigilea: Grégoire Mabire
Itzulpena: Aiora Jaka
Ttartalo, 2015
28 orrialde; haurrentzat

“Aitatxo? Irakurriko diguzu ipuin bat?”. Galdera inozente hori dugu album honen hasieran; eta itxuraz oso kontu sinplea eta inozentea dirudiena korapilatzen joango da aurrera egin ahala.

Otsoaren ipuina du izenburu Véronique Caplain eta Grégoire Mabireren liburu honek eta gure artean, gizakion artean, otsoa beti animalia gaiztoa, indartsua eta indarkeria zalea, erasotzen eta hiltzen duen animalia moduan ikusi izan bada, pentsa zer usteko duten ahuntzek... Istorio honetako protagonistak Aker aita, eta Antton eta Xixili antxumeak dira eta.

Narratzaileek, testuaren bidez eta irudien bidez istorioa narratzen diguten biek, aita eta umeen arteko istorioa kontatzeaz gain, aita irakurtzen duen liburuarena ere azaltzen digute, bien artean egoera paraleloak sortaraziz jolas polita sortuz, gainera. Aita irakurtzen hasi da: “Negua da eta hotz handia egiten du kanpoan. Basoan, otso bat janari bila dabil. Egunak eta egunak eman ditu jan gabe, eta gose da, hain gose, non hortzak dardarka hasi baitzaizkio: KLA! KLA! KLA!”. Une horretantxe, zarata arraro bat entzun dute kanpoan: KLA! KLA! KLA! (...) Itzul gaitezen gure ipuinerara: “Herriarrak beldur dira; hain beldur, non ateak giltzaz itxi baitituzte. KLIK KLA!”. Une horretantxe, zarata arraro bat entzun dute etxean: KLIK KLA!”. Aita irakurtzen ari den liburuaren egoerak beren etxean, beren inguruan errepikatzen direla sentitzen dute; eta ikaratu egiten dira antxumeak. “Otsoa izango da? (...) Bai, zera! Ez da posible. Gure basoetan ez dago otsorik”.

Eta aitatxoren erantzun horrekin antxumeak lasaitzen direla ematen du.

Ikusleak, baina, argi eta garbi nabaritutako du umetxoei erantzun hori eman arren aker aitaren begiradan gero eta larritasun, gero eta ikara handiagoa ikusten dela.

Amaieran, jakina, irakurlearen irribarrea bilatzen da. Hain adoretuak diren horiek ere beldur izaten direla; aitatxok ere bere burua ezkuta dezakeela eta ezkutatzeko duela kuxinen azpian! Eta orduan umetxoek “Ipuin bat besterik ez da. Ipuin bat, besterik ez”, esanez amaiera ematen diote liburuari (irakurtzen ari ziren liburu besopean, lasai, besaulkian erdi jolasean, harridura eta kuriositate aurpegia dutelarik, kuxinen azpian ezkutaturik, aurpegi erdia bakarrik bistan duen aitari begira).

Istorioan ageri den narrazio honez gain badira irudien bidez azaltzen zaizkigun beste kontu asko. Sentimenduen eta sentsazioen deskribapenak, espazio eta tokien sinpletasunaren bidez ikuslearen begirada garrantzitsuenera bideratzeko asmoa... eta baita ere aitatxoren presentzia etxean, etxeko lanak egiten, sukaldean, arropa garbitzen eta zintzilikatzen, haurren ardura bere gain hartuz. Alegia, umorezko kontu horrez gain, otsoaz gain, beste kontu ugari irribarreak errepikatzen duen moduko istorio bitxia da *Otsoaren ipuina* hau. ■



Aiora Jakak itzuli du
“Otsoaren ipuina”.